

Kontrol Kodea
 Código de Control

GEF-GET-ICIO-02-DN.496 //

0012020060501 Noiz eskatzen da zerga?	0012020060501 ¿Cuándo se exige el impuesto?
Getxoko udal-mugartearen barruan edozein eraikuntza, instalazio edo obra egiten denean, horretarako obra-lizentzia lortu behar denean edo erantzukizunpeko adierazpena edo aldez aurreko jakinarazpena aurkeztu behar denean, hori egitea edo izapidetzea Udalarri dagokionean.	Cuando se realiza dentro del término municipal de Getxo cualquier construcción, instalación u obra para la que sea exigible obtener la correspondiente licencia de obras o presentar declaración responsable o comunicación previa, cuando su expedición o tramitación correspondan al Ayuntamiento.
0012020060502 Noiz ez da eskatzen zerga?	0012020060502 ¿Cuándo no se exige el impuesto?
Obra-lizentziarik edo erantzukizunpeko adierazpenik edo aurretiazko jakinarazpenik behar ez duten jarduketak direnean. Ikusi hirigintza-lizentziei eta jakinarazitako egintzei buruzko Udal Ordenantza.	Cuando se trata de actuaciones para las que no se requiere licencia de obras ni presentación de declaración responsable o comunicación previa. Ver la Ordenanza municipal sobre licencias urbanísticas y actos comunicados.
0012020060503 Zein data hartzen da kontuan zergaren eskakizuna zehazteko?	0012020060503 ¿Qué fecha se tiene en cuenta para determinar la exigencia del impuesto?
Eraikuntza, instalazioa edo obra hasten denean sortzen da zerga. Hala ere, autolikidazioa edo konturako behin-behineko likidazioa nahitaezko lizentzia ematen denean edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkezten denean egiten da.	El impuesto se devenga en el momento de iniciarse la construcción, instalación u obra. No obstante, la autoliquidación o liquidación provisional a cuenta se practica cuando se concede la licencia preceptiva o se presenta la declaración responsable o la comunicación previa.
0012020060504 Nori eskatzen zaio zerga?	0012020060504 ¿A quién se exige el impuesto?
Ordezko subjektu pasiboa lizentzia eskatzen duena, erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkezten duena edo eraikuntza, instalazioa edo obra egiten duena da.	El sujeto pasivo sustituto es quien solicita la licencia o presenta la declaración responsable o comunicación previa o quien realiza la construcción, instalación u obra.
0012020060505 Nork eskatzen du zerga?	0012020060505 ¿Quién exige el impuesto?
Eraikuntza, instalazioa edo obra egiten den udalerriko Udalak.	El Ayuntamiento del término municipal en el que se realice la construcción, instalación u obra.
0012020060506 Zein balioaren gainean ordaintzen da zerga?	0012020060506 ¿Cuál es el valor sobre el que se paga el impuesto?
Zerga-oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostu efektiboa da, eta halakotzat hartzen da, ondorio horietarako, obraren egikaritze materialaren kostua. Hala ere, behin-behineko likidazioa interesdunak aurkeztutako aurrekontuaren arabera egiten da.	La base imponible es el coste real y efectivo de la construcción, instalación u obra, y se entiende por tal, e estos efectos, el coste de ejecución material de la obra. No obstante, la liquidación provisional se practica en función del presupuesto presentado por el interesado.
0012020060507 Zer kontzeptu sartzen dira zerga-oinarrian?	0012020060507 ¿Qué conceptos se entienden incluidos en la Base Imponible?
Zergaren zerga-oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostu efektiboak osatzen du, eta, ondorio horietarako, obraren exekuzio materialaren kostua hartzen da halakotzat. Zerga-oinarrian ez dira sartzen balio erantsiaren gaineko zerga eta araubide berezietan dagozkien antzeko gainerako zergak, eraikuntzarekin, instalazioarekin edo obrarekin zerikusia duten tasak, prezio publikoak eta tokiko ondare-prestazio publikoak, ezta profesionalen ordainsariak, kontratistaren enpresa-etekina eta exekuzio materialaren kostua hertsiki osatzen ez duen beste edozein kontzeptu ere.	La base imponible del impuesto está constituida por el coste real y efectivo de la construcción, instalación u obra, y se entiende por tal, a estos efectos, el coste de ejecución material de aquella. No forman parte de la base imponible el impuesto sobre el valor añadido y demás impuestos análogos propios de regímenes especiales, las tasas, precios públicos y demás prestaciones patrimoniales de carácter público local relacionadas, en su caso, con la construcción, instalación u obra, ni tampoco los honorarios de profesionales, el beneficio empresarial del contratista ni cualquier otro concepto que no integre, estrictamente, el coste de ejecución material.
0012020060508 Zenbat ordaintzen da zergagatik?	0012020060508 ¿Cuánto se paga por el impuesto?
Tributu-kuota zerga-oinarriari karga-tasa aplikatzearen emaitza izango da.	La cuota tributaria será el resultado de aplicar a la base imponible el tipo de gravamen.

Kontrol Kodea
 Código de Control

GEF-GET-ICIO-02-DN.496 //

0012020060509 Ba al dago hobaririk zergaren kuotan?	0012020060509 ¿Existe algún tipo de bonificación en la cuota del impuesto?
<p>Bai. Getxoko Udalak honako hobari hauek ditu onartuta:</p> <p>a) %95 arteko hobaria, egoera sozial, kultural, historiko-artistiko edo enplegua eta aldi baterako ostatua sustatzeko inguruabarrak izateagatik udal-interes edo onura berezikotzat jotzen diren eraikuntza, instalazio edo obretarako.</p> <p>b) %90eko hobaria, ezgaituen sarbide- eta bizigarritasun-baldintzak errazten dituzten obretarako.</p> <p>c) %90eko hobaria, eguzki-energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak dituzten eraikuntza, instalazio edo obretarako.</p> <p>Aipatutako hobariak bateraezina dira euren artean. Bat baino gehiago aplikatzeko inguruabarrak gertatuz gero, onuragarriena aplikatuko litzateke.</p>	<p>Sí. El Ayuntamiento de Getxo tiene aprobada las siguientes bonificaciones:</p> <p>a) Hasta el 95% para las construcciones, instalaciones u obras que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico-artísticas o de fomento del empleo y del alojamiento transitorio que justifiquen tal declaración.</p> <p>b) Bonificación del 90% para las obras que favorezcan las condiciones de acceso y habitabilidad de los discapacitados.</p> <p>c) Bonificación del 90% para las construcciones, instalaciones u obras en las que se incorporen sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía solar.</p> <p>Las bonificaciones señaladas son incompatibles entre sí. Si concurrieran las circunstancias para aplicar varias se aplicaría la más favorable,</p>
0012020060510 Noizero ordaintzen da zerga?	0012020060510 ¿Cada cuánto se paga el impuesto?
<p>Eraikuntza, instalazio edo obra bat egiten den bakoitzean.</p>	<p>Cada vez que se realiza una construcción, instalación u obra.</p>
0012020060511 Eta lizentzia eskatu edo erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkeztu ondoren eraikuntza, instalazioa edo obra ez egitea erabakitzen bada?	0012020060511 ¿Y si una vez solicitada la licencia o presentada la declaración responsable o comunicación previa se decide no ejecutar la construcción, instalación u obra?
<p>Interesdunak idatziz egin beharko dio uko baimendutako obra, eraikuntza edo instalazioa egiteari, eta inguruabar horren berri eman beharko dio Udalari.</p> <p>Zerbitzu teknikoek horri buruzko txostena jaulkiko dute eta obra egin ez bada, behin-behineko likidazioak egindako diru-sarrera bidegabeko diru-sarreretatik hartuko da, eta itzultzeko eskatu ahal izango du.</p>	<p>El/la interesado/a deberá formular por escrito renuncia expresa a la realización de la obra, construcción o instalación autorizada comunicando esta circunstancia al Ayuntamiento.</p> <p>Los servicios Técnicos informarán al respecto y si la obra no se ha realizado, el ingreso realizado por la liquidación provisional se considerará un ingreso indebido y podrá instar su devolución.</p>